

OSTEGUNA

2019/09/05
7. urtea, 2.002. zenbakia
107.6 fm

www.ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

Xarearen aro berri bat hasiko dute Iruran

I. San Migel Xake Irekia antolatu dute, eta lau bikote ariko dira nor baino nor, bihar hasi eta irailaren 28ra arte //



Atzo egin zuten txapelketaren aurkezpena Iruran. IMANOL GARCIA LANDA

Gaztelaniaz ere argitaratu dute festetako egitaraua

Jai egitarau berria argitaratu eta banatu du Zizurkilgo Udalak, euskaraz eta gaztelaniaz, PSE-EEK egindako eskariari jarraituz //



ALTZO

ESTALPE BERRIA PREST

600 metro karratu dituen jolastoki estalia izango du aurrerantzean Altzoko eskola txikiak; 240.000 euroko aurrekontuarekin, udalaren proiektu nagusien artean zegoen, eta diru laguntzen bitartez egin ahal izan dute //

ENERITZ MAIZTEKARRI

HEOI TOLOSA Hizkuntza Eskola Ofizialak
Escuelas Oficiales de Idiomas
ENGLISH - FRANÇAIS

MATRIKULA
Irailaren 1etik 18ra
(13:00ak arte)
1.fasea
72,36 €

Klaseak goiz edo arratsaldean
Elkarrizketetan ama-hizkuntzadun irakasleak
Informazio gehiagorako jarri gurekin harremanetan

EOI TOLOSA HEO - Paper Kalea, 1- Tfno.: 943 69 75 60
20400 TOLOSA www.eoitolosaheo.hezkuntza.net / eoitolosa@gmail.com

Ibarraska!
herrian erosteak saria dauka

IBARRAN EROSI

ESALDIA OSATU eta atxikitutako denda batean aurkezten duen lehenarentzat **SARIA**

renfe

Data: Abenduak 6, 7, 8 de Diciembre
Fecha: Abenduak 6 de Diciembre

Joana: TOLOSA - MADRID
Ida: Abenduak 6 de Diciembre

Etorri: MADRID - TOLOSA 2 pertsona
Vuelta: Abenduak 8 de Diciembre 2 personas

Ostatur: **hotel INDIGO** + **GOSARIAK + TRASLADOAK**
Alojamiento: **hotel INDIGO** + **desayunos + traslados**

Gainera: 300€ EROSKETA TXEKRA
Además: 300€ CHEQUE REGALO

* Adibidea hainbat erabileren erabilera / los cambios a cuenta del premio



Epelde, 2016an, Ordiziako Barrena kultur etxeko erakusketan. ARIANE VIERBUCHER

Azken agurra eman diote Patxi Epelde artistari

Pasa den abuztuaren 28an zendu zen, Ordizian, margolari eta eskultore tolosarra. Tartean, CAF enpresa atarian dagoen 'Amiantorenei' obra egin zuen.

Josu Artutxa Dorronsoro

Abuztuaren 28an hil zen Patxi Epelde margolari eta eskultore, 63 urte zituela. Sortzez tolosarra zen, nahiz eta Ordizian bizi zen. Ezaguna zen bere ibilbideagatik, baita hainbat erakusketa eta tailer antolatzeagatik ere; Iñaki anaia ere artista entzutetsua izan zen eskualdean. Margolanak ez ezik, eskultura arloa ere jorratu zuen, eta berak egina da, besteak beste, CAF lantokiaren atarian dagoen *Amiantorenei* eskultura. Ordizian egin ohi den Gipuzkoako Aurreku Txapelketako garai-kurra ere berak egindakoa da. Horrez gain, pintura eta eskultu-

ra eskola gidatu zuen Ordiziako Barrena Jauregian 90. hamarkadaz geroztik, Goierriko Artisten Topaketan eta Ehunate proiektu kolektiboan ere parte hartu zuen, eta Goiart sariketako eta Beasaingo Aterpe pintura lehia-ketako epaimahaikide ere izan zen.

Abuztuaren 30ean eman zioten azken agurra senide eta lagunek, Ordiziako Barrena Kultur Etxean egindako ekitaldian. Epeldek hainbat erakusketa egin zituen bertan, eta jauregia bere garapenaren lekuko dela ere esan daiteke, 1991n, 2001ean eta 2016an erakutsi baitzituen bere obrak han.

KUTTUNENA, 'AMIANTORENEI'

Beasaingo CAF enpresako langileek ere gogoan izan zuten Epelde. Duela 10 urte, 2009ko apirilean, langileen mobilizazio handi baten ondoren, *Amiantorenei* izeneko eskultura inauguratu zuten lantokiaren ataritik gertu; hain justu, Epeldek egina. Obraren inguruan, amiantoaren ondorioz hildakoak gogoratu, enpresa eta erakundeen pasibotasuna salatu eta CAFekoak eta beste enpresetako biktimak izan diren langileen errekonozimendua eta kalte-ordaina aldarrikatzaren dute urteroa.

Epeldek, *Amiantorenei* eskulturarekin, langileek mineral horren inguruan duten sentipena era artistikoan islatu nahi izan zuen. Horregatik, bere lanari eta bere borrokari merezitako omenaldia eskaini nahi izan zioten duela egun batzuk langileek.

2016an, GOIERRIKO HITZA-n egindako elkarrizketan, amiantoaren biktimei eskainitako lana, berarentzat «oso berezia» zela aitortu zuen: «Eskaera bat izan zen. Lotura handia zuen 'Arbolaren babesarekin', nire eskultura egiteko moduarekin. Bannuen, gainera, omenaldi horrentzat burdinazko pieza aproposa. Gainera, toki publikoan jartzeko zen, handik pasatzen den edonork ikusteko. Erabat pozik gelditu nintzen emaitzarekin».

Elkarrizketa berean, honakoa esan zuen bere estiloari buruz galdetuta: «Estiloak ez dit sekula kezkatu. Hori bai, jendeak esan ohi dit nire lanek badutela estilo bat, hau da, nireak direla antzematen dela. Nik nirea egiten dut, eta ondoren nire lana ikusten duenak, atera ditzala bere ondorioak. Bakoitzak ea zer ikusten duen nik egindako horretan. Nire helburua ez da estiloa».

IRAGARKI LABURRAK

Lan eskaintza

Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko. Pertsonabaten bilanabil etxeko garbiketarak egiten lagundu, eta hiru haurrei gosaria eman eta eskolara eramateko. Egunero izango litzake, astelehenetik ostiralera, 07:30etik 09:30era gutxi gorabehera. Interesatuak deitu mesedez 669 028 202 telefono zenbakira.

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

Iragarki guztiak iragarkilaburrak.eus-en

'Iran ezkutua' erakusketako azken bisita gidatua, bihar

TOLOSA // Ura Iturralde argazkilaria tolosarrak *Iran Ezkutua* erakusketa jarri zuen ikusgai ekainean, Gernikako Arbolan. Iranar LGTBI komunitateari buruzko istorio desberdinetan oinarritzen den argazki erakusketa da. Uda osoan egon da ikusgai, eta bihar izango da argazkiak ezagutzeko azken aukera, argazkilaria eskutik. 19:00etan izango da, eta ez da beharrezkoa izena ematea.

Azimut jaialdia, larunbatean, Casino elkartean

TOLOSA // Larunbatean, I. Azimut jaialdia ospatuko da Casino elkartean, Arima Tatook antolatuta. Goizeko 10:00etan hasiko da festa, eta 21:30eak arte luzatuko da. Diskoak saldu nahiz erosteko eta zine-komik bildumak nahiz disko-jogailuak ikuskatzeko aukera izango da. Gainera, zuzeneko musika izango da DJ Cereren eskutik. Gastrotaberna bat jarriko dute, eta tatua-jeak egiteko aukera izango da.

Txakur-kroseean aritzeko hastapen saioa, kultur etxean

TOLOSA // Iosu Varonak txakurkrosari buruzko doako hitzaldia eskainiko du, irailaren 7an, larunbatean, Tolosako Kultur Etxean. Hastapen saio bat izango da, eta 10:00etan hasiko da. Hitzaldia espezialitate honetan aritu nahi duten guztiei eskainia izango da. Gainera, irailaren 8an, igandea, txakurrekin entrenatzera joateko elkarrateratzea egingo dute, Ibiurren. Goizeko 08:00etan eratuko dira.

Oargi Mendi Elkartearekin, Eriste eta Bachimalara

TOLOSA // Irailaren 13, 14 eta 15eko astebururako irteera antolatuko du Oargi Mendi Elkarteak. Ostiralean irtengo dira Tolosatik; larunbatean, Eriste mendira igoko dira; eta igandean Bachimalako ertza egingo dute 9-10 orduko ibilaldia burutuz, Tolosara itzuli aurretik. Izena emateko, oargimendi@gmail.com-era idatzi, 688 698 642 telefonora deitu, edo elkartera bertaratu behar da hilaren 9a baino lehen.

Oraindik zabalik da izen ematea Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolan

Bete gabe geratu diren plazetan matrikulatzeko aukera dute musika ikasgaiak jaso nahi dituzten herritarrek.

Josu Artutxa

Tolosako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolan, irailaren 9an, datorren astelehenean, ekingo diete 2019-2020 ikasturteko eskolei. Oraindik, ordea, bertan matrikulatu nahi duenak badu aukera, plaza batzuk bete gabe daudelako.

Lau adin-tartetan banatuta, edozein herritarrentzako moduko ikastaroak eskaintzen dituzte musika eskolan. Batetik, lehenengo zikloko ikasleek (4 urtetik 6 urtera bitarteko haurrek), jolasen eta kantuen bitartez, entzumenahiz erritmoa lantzeko aukera dute. Bestetik, bigarren ziklokoek (8 urtetik aurrerako haurrak), instrumenturen bat jotzen ikasteko, musika hizkuntza lantzeko edota talde nahiz abesbatza baten parte izateko aukera dute. Horiez gain, 7 urtetik gorakoek, musika irakurri eta instrumentuak ezagutzeko aukera dute, *Aurre-hasiera* deituriko zikloaren bitartez. Azkenik, helduentzako ere bada eskaintzarik. Izan ere, 18 urte baino gehiago dituzten herritarrek, musika hizkuntzan trebatzeko, instrumenturen bat jotzen ikasteko edota koru edo talde baten kide izateko aukera dute, gaztetxoan moduan.

ESKAERA EGITEKO AUKERAK

Musika eskolan, pasa den ikasturtea amaitu baino lehen hasi ziren aurtengoa planifikatzen, eta matrikulazio epeak zabalitzen. Orain, arestian aipatu moduan, zenbait plaza hutsik geratu dira. Horiek, zuzenean esleitu dira, musika eskolan bertan eskatu ahala. Kontuan hartzekoa da beharpenak ere badaudela familia ugarientzat.

Izena emateko interesa dutenek, informazio eskaera zein tramiteak Musika Eskolan egin beharko dituzte, astelehenetik ostiralera (10:00-13:00). Zalantzak argitzeko, 943 65 15 93 telefonora deitu, eskolara bertaratu (Rondilla kalea, 34 B) edo musika@tolosa.eus-era mezua bidali daiteke.





Erabilera irekia izango du eskolako jolastoki berriak. E. MAIZ

Estalpe berriarekin, negurako prest dago Altzoko eskola

Altzoko eskola txikiak aurrerantzean jolastoki estalia izango du; udako oporretan egin dituzte obrak, eta haurrek ikasturte berria hasterako udalak prest jarri du guztia

Eneritz Maiz Etxarri Altzoko

Altzoko Udalaren proiektu nagusien artean zegoen eskolako jolastokia estaltzearena. Altzok, herriko pilotalekuaz aparte, orain artean ez du beste toki estalirik izan, eta askotan egindako eskaerari erantzuna eman diote uda honetan.

Aurreko udal gobernuak 2019ko proiektuen artean sartu zuen eskolako jolastokia estaltzearena, eta proiektua egina zuen uda honetan gauzatu ahal izateko.

240.000 euroko aurrekontua izan du proiektuak, eta eskolako irakasle eta ikasleen opor egunak baliatu dituzte lanak egiteko. Ekainaren amaieran hasi ziren, eta aste honetan bertan azken ukituak eman dizkiote amaitzeko. Txomin Rezola alkateak azpimarratu du %100ean diru laguntzen bidez finantzatu dutela obra. Altzoko Udalak Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Eusko Jaurlaritzatik lortu ditu diru laguntzak.

Neguan eguraldi txarra egiten



Tenperatura eta argitasuna kontuan hartuta teilu eta polikarbonatoa jarri dute. E.M.

duenean, nahiko toki hotz eta haizetsua izan da eskolako jolastokia, eta horri irtenbidea ematera dator estalpea.

Txomin Rezola alkateak adierazi duenez: «Hegoaldetik teilu jarri da itzala egin eta tenperatura mantendu ahal izateko, eta iparraldetik, berriz, polikarbonatoa jarri da, argitasuna sartu ahal izateko».

Gainerakoan, egurrezko egitura du estalpeak.

ERABILERA IREKIA

600 metro karratu dituen jolastokia da udalak egokitu duena, eta erabilera ezberdinetarako balioko du. «Futboleko edo saskibaloian ibiltzeko prestatuta dago, esaterako», azaldu du Rezola, baina «urteko edozein ekitaldi egiteko ere erabilgarria izango da».

Gainerakoan, erabilera irekia izango du eskolaz kanpoko ordutan.

Jai egitaraua gaztelaniaz argitaratzea lortu dutelako «pozik»

Zizurkilgo PSE-EEk udal gobernuari euskara hutsez argitaratutako egitaraua gaztelaniaz ere argitaratzeko eskatu dio, «herriar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuz»

Erredakzioa Zizurkil

Jose Antonio Sanchez Zizurkilgo PSE-EEren zinegotzia gustura agertu da udal gobernuak atzera egin, eta festetako egitarau berria argitaratu eta banatu duela: «PSE-EEk eskatu bezala, herriar guztien hizkuntza eskubideak errespetatuz».

Abuztuaren 26ko osoko udal bilkuran Jose Antonio Sanchez PSE-EEren zinegotzia kexu agertu zen: «EH Bilduko alkateari esan genion herrian zabaldu zuten festetako liburuxkarekin ez ginela ados. Herriarren artean zegoen ondoreza adierazi genion. Bizilagun ugari liburuxka baztertu egin zuten, herriarren zati bat hizkuntzaren arloan diskriminatua zegoelako».

PSE-EEren esanetan, alkateak eskuak garbitu zituen, erabakia festa batzordearen ardura zela esanaz. «Jarrera horren aurrean, udal talde sozialistak kalean zeuden festetako karteletan aldaketak egin zituen, gaztelania sartuz eta sare sozialetan zabalduz; herriar guztiak egoki informatuak egon zitezen».

Sanchez «pozik» agertu den arren, Iker Urruzola alkateari ondorengo gogoratu nahi izan dio: «Etorkizuneko udal aldizkariari begira, herriar guztiok dugu eskubidea Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan informatuak izateko. Sentsibiltate eta zentzu kontua izateaz gain, edozein erakunde publikok duen obligazioa dela gogoratu nahi diogu».

Bukatzeke, gaztelania hutsean zabaldu duten prentsa oharrean, PSE-EEko ordezkariak Zizurkilgo bizikidetzaren alde lanean jarraituko dutela esan dute; «diskriminaziorik egon ez dadin, ez arrazoi politiko, jatorri, hizkuntza edo sexuarengatik».

Azkenik, tolerantzia eta errespetua adibide izan behar dutela azaldu dute PSE-EEko kideak,

eta azpimarratu nahi izan dute, «gure gizartea aberasten duten» bi hizkuntza ofizial izateko «zor-tea» dutela.

UDAL GOBERNUTIK ZEHAZTAPENAK

Zizurkilgo EH Bilduko udal gobernuak PSE-EEren zinegotziari erantzun nahi izan dio, «festa batzordea organo irekia» dela argituz. Eta gogoraraziz, «edonork hartu dezake parte bertan, eta udal gobernuak bere autonomia errespetatu eta babesten du, altxor bat delako herriarrek festak antolatzea».

«Zizurkilgo udalbatzak euskara plana onartua du aho batez, eta bertan euskararen normalizaziorako bidean urratsak ematea jasotzen da, euskarari lehen-tasuna emanez». Eta udal gober-nuko kideek, «Zizurkilgo euskara ulertzen dutenen kopurua oso handia dela ikusita guztia etengabe elebitan jartzea gaititu behar dela ondorioztatuz», argitu dute.

Hori esanda, «datorren urtera begira gogoeta bultzatuko dugu festa batzordearekin batera, urratsak ematen jarrai dezagun», nabarmendu dute. «Zizurkilgo euskaldunagorako bidean ahal dela inor euskararen aurka jarri gabe».

Eta bide honetan «Alderdi Sozialista –zeinaren bozeramaileak ez dakien euskaraz– salatzen dugu bi hizkuntzen bizikidetzaren aldarria egiten agertzeagatik, bi hizkuntzak jakitea denean bizikidetzarako urrats garrantzitsuena».

Mezu garbia zabalduz amaitu nahi izan dute erantzuna: «Polemika antzuak utzi, festa batzordeari egindako lana eskertu eta festa ederrak opa dizkiegu zizurkildarrei. Festa euskaldun eta parte hartzaileak izan daitezela, etorkizuneko Zizurkil izatea nahiko genukeen moduan».



elduaien
hizkuntza eskola • academia de idiomas

Hizkuntzak hitzak baino gehiago diren tokia!

- Mailaren arabeko hizkuntza ikastaroak
- Adin guztietarako: haur, gazte eta heldu
- Talde murriztuak
- Cambridge Assessment English zentro aztertzaile ofiziala
- Familientzako deskontu interesgarriak!

Tarifa berriak haurrentzat!

- ① ELDUAIEN GOROSABEL
- ② ELDUAIEN NAFARROA ETORBIDEA
- ③ ELDUAIEN MARTIN JOSE IRAOLA
- ④ ELDUAIEN KONDEKO ALDAPA



Irun • Donostia: Intxaurren (2) + Ondarreta + Gros • Lasarte (2)
Urnieta • Andoain • Villabona • Tolosa (4) • Alegia • Beasain

943 67 47 33 kondeko@elduaen.com www.elduaen.com



Zizurkilgo Udalak prentsaurrekoa eskaini zuen astelehenean, festetarako hartu dituzten neurriak azaltzeko. ATARIA

Alkizan, Bedaion, Elduainen, Izaskun auzoan, Lizartzan eta Zizurkilen festak ospatuko dituzte asteburuan; jai parekideagoen eta inklusiboagoen alde lanketa egin dute Zizurkilen.

Badu jarraipena festak

Irati Saizar Artola

Abuztua amaitu eta errutinaren zirkuluan murgilduagatik, bada oraindik festarako aukera eskualdean. Tolosaldeko sei herri eta auzotan festak ospatuko dira gaur hasi eta igandera bitartean. Alkizan eta Zizurkilgo Elbarrenan gaur arratsaldean lehertuko da suzeria, eta bihar egingo dute Tolosako Bedaio eta Izaskun auzoetan, Elduainen eta Lizartzan. Zizurkilen izan ezik, igandean agurtuko dituzte jaiak beste lekuetan, eta astelehena izango dute azken eguna zizurkildarrek.

Festa berdinzale eta indarkeria matxistarik gabekoak nahi dituzte herri horietan, eta Zizurkilgo Udalak horren berri emateko prentsaurrekoa eskaini du festa bezperan.

Jai berdinzaleagoak eta inklusiboagoak nahi dituzte Elbarrenako festetan. Horretarako, herritarrei laguntza eskatu diete

eta bi ekimen jarri dituzte martxan. Batetik, berdintasuna lortu asmoz, prozesu parte hartzaile bat prestatu dute jaietan zehar aurrera eramateko: «Herritarren iritzia jaso nahi ditugu, festetan zehar behaketa bat egin dezaten nahi dugu, eta ikusten duten hori koadernotxo batzuetan jasotzea da asmoa». Jai gunean jarriko dituzte eskuragarri koadernotxoak eta udal bulegoetan ere izango da horretarako aukera.

Bestetik, festa inklusiboagoak egiteko, neurri berri bat hartu du udalak: behar bereziak dituzten haurrek barrakez goza dezaten, jaietako bi arratsaldetan, ez da musika eta argirik egongo barraketan.

Beraz, bihar eta etzi, 17:00etatik 19:00etara bitartean, Aizpuruaneako aparkalekuan dauden barraketako eremua argirik eta musikarik gabe egongo da. Erabakiaren arrazoiak azaldu ditu udalak: «Aniztasun funtzionala duten pertsonen hipersentibertasuna dute zaratarekiko, argiarekiko nahiz musika altuarekiko,

eta barraken eremuetan oso urduri jarri ohi dira». Neurri hori «ekintza sinple bezain esanguratsua» dela adierazi dute, eta festetan ere inklusiboak izatea garrantzitsua dela gaineratu dute. «Gainera, aniztasun funtzionala duten pertsonen eta horien familiek dituzten zailtasunez kontzienteago egiteko modua izango da». Bestalde, udalak eskerrak eman dizkie barraketako ardura-dunei, eskainitako laguntzagatik.

PROKOLOAREN BERRI

Beste neurriez gain, indarkeria matxistak herriko jaietan lekurik ez duela izango argi utzi nahi izan du Zizurkilgo Udalak. Duela bi urte herritarren parte hartzearekin protokolo bat osatu zuten, eta horren berri eman nahi diete herritarrei. Erasoaren aurrean nola erantzun jakiteko, triptikoak banatuko dituzte festetan zehar, eta kartelak itsatsiko dituzte herrian barrena. «Erasorik gabeko jai atseginak nahi ditugu», esan dute.

EGITARAUA

ALKIZA

Gaur.
16:00. Haurrentzako jolasak.
17:30. Andoni Ollokiegiren kontzertua eta txokolate jatea.
19:30. Txupinazoa, oiloaren jaitziera eta buruhandiak.
21:00. Herri afaria Ostatu jatetxean.
Ondoren. Elizagoien ahizpak.

Irailak 6, ostirala. Mozorro Eguna.
11:00. Puzgarriak.
17:00. Herriko beteranoen arteko pilota txapelketako finala.
Ondoren. Helduen toka txapelketa.
20:30. Barrikotea.
23:00. Mozorroen sari banaketa.
00:00. Xabi Solano eta Zigor DZ.
Ondoren. DJ Jotatxo.

Irailak 7, larunbata.
10:30. Haurren txirrindulari lasterketa.
14:00. Jubilatuen bazkaria.
17:00. Kirol jolasak eta giza-proba hilerriko aparkalekuan, herrian falta diren gazteen omenez.
Ondoren. Sagardo dastaketa.
23:00. Herri kirol saioa.
Jarraian. Ezten Giroekin dantzaldia.

Irailak 8, igandea.
10:00. Meza.
11:00. Haurren pilota partidak.
12:00. Txakolin dastaketa.
18:00. Bertso saioa: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Altor Mendiluze eta Iker Zubeldia. Gai jartzailea: Amaia Agirre.
Ondoren. Izer eta Alabier.
Bitartean. Eko Talo, taloak saltzen.

BEDAIO

Irailak 6, ostirala.
19:00. Txupinazoa eta Alegiako Sutarri dantza taldea.
19:30. Patata tortilla lehiaketa eta pintxo-potea bertso eta dantzari-ekin. Bertsolariak: Mikel Artola eta Unai Mendizabal.
21:00. Zahagi ardoa.
Ondoren. Elustondo anai-arrebak.
Goizaldera. Baratzuri zopa eta txokolataa elkartean, eta aulki jokoa frontoian.

Irailak 7, larunbata.
17:00. Ume jolasak.
19:00. Ataungo Jentilen ipuin antzeztuak.
21:00. Herri afaria.
Ondoren. Erromeria Izer eta Alabier, eta Ansoregi-Larrañagarekin.
Goizaldera. Baratzuri zopa eta txokolataa.

Irailak 8, igandea.
11:00. Meza nagusia.
Ondoren. Hamaiketako trikitilari-ekin.
13:00. Bedaioko XXX. txirrindulari goiera.

18:00. Herri kirolak. Aizkolariak: Txikia V.a eta Larrañaga VS Maika era Itsaso. Harri-jasotzaileak: Aimar Iri- goien eta Mikel Lopetegi *Urre*. Le- henik, erakustaldia, eta ondoren bi taldeen arteko lehia.
Jarraian. Bedaioko ingurutxoa.
21:00. Afaria Artubi elkartean.
00:00. Jaien amaiera, suziriekin.

ELDUAIN

Irailak 6, ostirala.
16:00. Jaien hasiera suziri eta kanpai jotzearekin.
16:00. Batukada tailerra Baturemore taldearekin, haur eta helduentzat.
18:00. Patata tortilla pintxoan bana- keta eta batukada emanaldia.
19:00. Buruhandiak herriko gazteen eskutik.
19:30. Antzerkia Berrobiko Txalo- Talo taldearen eskutik.
00:00. Erromeria Ingo Al Deu? tal- dearekin.

Irailak 7, larunbata.
10:00. Auto klasikoen KDD.
12:00. Toka txapelketa plazan haur eta helduentzat.
14:00. Herri bazkaria frontoian.
Bazkalondoren. Puzgarriak, jolasak eta apar festa.
00:00. Erromeria Basajaun talde- rekin.

Irailak 8, igandea.
11:00. Meza nagusia, Santa Katalina elizan.
11:00. Herriko haur eta gazteen pilo- ta partidak. Ondoren, afizionatuen arteko binakakoa: Zubiria-Elizegi VS Egiguren-Aizpuru.
12:00. Hamaiketako, sardina, lba- rrako langostino, txorizo, txakolin eta sagardoarekin.
18:00. Alurr taldearen emanaldia.
19:00. Txokolatada.
19:30. Bocabeats Comedia bikotea- ren emanaldia.

IZASKUN AUZOA

Irailak 6, ostirala.
18:00. Txupinazoa.
18:30. Txokolate jatea.
Ondoren. Buruhandiak.
20:30. Danborrada afaria.

22:30. Danborrada txarangarekin, auzoan barrena.
00:00. Alaiki erromeria taldea.

Irailak 7, larunbata.
11:00. Entzierro txikia eta buruhan- diak, Zabalarreta parkean.
12:00. 3x3 saskibalo txapelketa, Sputnik plazan.
14:00. Auzo bazkaria, Izaskun pla- zan.
19:00. Sagardo dastaketa, pintxo-ekin, Izaskun plazan.
21:00. Zahagi ardoa, Izaskun plazan.
23:00. Kontzertuak: Unidad Alave- sa eta Little Martin Selektah.

Irailak 8, igandea.
09:00. Tolosako Udal Txistulari Ban- daren diana.
10:30. Tortilla prestaketa.
10:30. Gaztelu puzgarria haurren- tzat.
12:00. Tortilla txapelketa (ondoren, pintxo-potea).
12:30. Udaberri dantza taldearen emanaldia.
14:00. Zahagi ardoa, Izaskun plazan.
17:00. Imanol Ituiño magoa.
18:30. Piñata.
19:00. Mariatxiak, Destino Sonora taldearekin.

LIZARTZA

Irailak 6, ostirala.
11:00. Hamaiketako udaletxeko arkupean.
12:00. Txupinazoa helduen eskutik.
12:30. Bertsolariak: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso.
14:00. Haur eta helduen bazkaria.
16:00. Kantu saio herrikoia Txirrita Elkartean.
16:00. Disko festa & Karaokea.
19:30. Kalejira Karobitxulorekin.
20:30. Haurren danborrada.
21:30. Herri afaria.
00:00. Ausentziaren txupinazoa.
00:05. Helduen danborrada.
01:00. Erromeria Iratzar taldearekin.

Irailak 7, larunbata.
10:00. Diana Lizardi txistulari talde- arekin.
11:00. Puzgarriak.
12:00. Lizartzako erraldoi eta bu-

ruhandien kalejira Gaiteroekin. Gon- bidatuak: Besamotza konpartsa.
12:30. Ardo txuri dastaketa.
13:00. Eskulan tailerrak.
14:30. Herri bazkaria.
16:00. Mus txapelketa herrikoia.
16:30. Kantaldia Andoni Ollokiegiren eskutik.
18:30. Sagardo eta pintxo dastake- ta.
19:30. Kalejira Lizardi txistulari tal- dearekin, ermitatik abiatuta.
21:30. Herri afaria.
00:00. Zezen suzkoa.
00:15. Erromeria Laket taldearekin.

Irailak 8, igandea.
09:30. Diana Lizartzako Gaiteroekin.
11:00. Meza nagusia.
11:30. Haurren pilota partidak.
12:30. Dantza soka.
13:00. Otsolar dantza taldearen emanaldia.
17:00. Zezen txikiak eta poniak Lo- pene ganadutegiaren eskutik.
18:30. Sokatira erakustaldia Ibarra- ko taldearen eskutik.
Ondoren. Lizartza-Ibarra desafioa.
20:00. Kantaldia: Pantxoa Carrere.

ZIZURKIL

Gaur.
19:00. Marrazki lehiaketa. Erakus- ketaren irekiera eta sari banaketa Plazida Otaño liburutegian.
20:00. Txupinazoa eta Melokotoia- ren aurkezpena, herriko Bukalai dantza taldeari eskainia.
Ondoren. Buruhandiak eta JunDaJo txaranga.
21:30. Herri afaria, Atxulondo eta Pasmus jatetxeen eskutik.
Afalostean. Txaranga.
02:00. Karaokea.

Irailak 6, ostirala. Gazte Eguna.
11:30. Haurrentzat dantza gidatua.
14:30. Gazte bazkaria Joxe Arregi plazan.
17:00. Zizika Zirkus taldearen *Ondo- rengoa* antzerkia: zirkoa, musika, klake eta umorez egindako ikuski- zuna, Aurrera plazan.
Ondoren. Txokolatada.
Jarraian. Buruhandiak Joxe Arregi plazan.

18:00. Elektropapo elektrotxaranga herrian zehar.
21:30. Gazte bokata afaria.
22:40. Suzko zezena.
23:00. Kontzertuak: Meliora, La Desbandada eta Anita Parker.

Irailak 7, larunbata. Mozorro eguna.
11:00. Haur tailerrak, Ombu guraso elkar- teak antolatuta.
Ondoren. Buruhandiak Joxe Arregi plazan.
14:00. Herri bazkaria.
Jarraian. Poste lehiaketa, bingo mu- sikatua eta psiko hiltzailea.
20:00-21:30. Gabezin taldearekin dantzaldia.
23:30. Dantzaldiaren jarraipena.
00:00. Mozorro lehiaketa eta psiko hiltzailearen sari banaketa.
Ondoren. DJ Gatxet eta DZ.
08:00. Diana.

Irailak 8, igandea.
11:00. Urkamendi Elkar- teak eskaini- tako sardina eta sagardo dastaketa.
12:45. Herriko Bukalai taldearen euskal dantza ikuskizuna.
16:00. XI. Joxe Arregi mus txapelke- ta.
16:30. Erraldoi eta buruhandi kon- partsa, Zizurkilgo Erraldoi eta Bu- ruhandien taldeak antolatuta. Irtee- ra Joxe Arregi plazatik.
Iluntzean. Ogitarteko iluntzea. Afa- ria norberak eramanda eta mahaia- k eta aulkiak bertan egongo dira.
21:30. *Putinen Guardasola* antzer- kia. Ramon Agirre aktorea eta Inazio Tolosa musikariaren eskutik.

Irailak 9, astelehena.
11:30. Ur eta kolore festa. Kamiseta zuria ekartzea komeni da.
13:30. Jubilatuen jolasak, Elizpe jubi- latu elkar- teak antolatuta.
14:30. Jubilatuen bazkaria.
16:30. Dantzaldia.
18:30. Patata tortilla lehiaketa. Das- taketarako aulkiak eta mahaia- k egongo dira plazan.
20:30. Melokotoi sariak.
22:00. Bertso saioa: Amets Arzallus, Igor Elortza, Maialen Lujanbio eta Miren Artetxe. Gai jartzailea: Igotz Alkorta.



galtzaundi
taberna

Ogitartekoak
Pintxoak
Errazioak
Plater konbinatuak

San Bartolome plaza | IBARRA | ☎ 691 080 726

Marea biziei eta olatuei aurre eginez

Hirugarren postua lortu dute Ioseba Mateosek eta Erika Amundarainek, Hendaiaiko itsas zeharkaldian.

Irati Urdalleta Lete

Hendaiaiko Ieres Boucles Hendaiaises itsas zeharkaldia egin zuten, pasa den igandean, Ibarako Ioseba Mateos eta Villabonako Erika Amundarain igerilariak. Podiumerako sailkatzea lortu zuten, marea bizien eta olatu handien ondorioz ibilbidea aldatu behar izan bazuten ere.

2,8 kilometro egiteko, 32 minutu eta 32 segundo behar izan zituen ibartarrak eta 36 minutu eta 55 segundo billabonarrak. Denbora horiekin, hirugarren postuan sailkatu ziren bata zein bestea, senior mailan. Gainera, absolutuetan, laugarrena izan zen Mateos eta seigarren Amundarain. Hala ere, arauet jarraituz, absolutu mailako sariak ez zituzten banatu.

HIRU URTEAN HIRU ZEHARKALDI

Bi igerilariak beste erronka bat dute buruan, eta hori lortzeko, zeharkaldi bat egingo dute larunbatean. Hain zuzen, Galizia-*ra* bidaiatuko dute, *Triple corona Illas Atlanticas* proban parte hartzeko. Bertan, hamabost gradu inguruko uraren tenperaturari aurre egin beharko diote.

Txapelketa horretan, hiru urtean hiru zeharkaldi egiten dira eta bigarrena izango da aurten goa. Salvora uhartetik O Gorvera egin beharko dute igeri, hemeretzi kilometro osatuz. Lehen pro-



Ioseba Mateosek hirugarren postua eskuratu zuen, senior mailan. ATARIA



Erika Amundarain hirugarren sailkatu zen seniorren artean. ATARIA

ba iaz egin zen eta hamabost kilometro egin zituzten Cies uhartetetik Baionara. Hirugarrena, berriz, datorren urtean egingo

da, 23 kilometro izango ditu eta Ons uhartetik Combarroa joango dira. Horrela, 57 kilometro osatuko dituzte guztira.

Kafearen filosofiaz



Zia edo boga Itzea Urkizu

Kaferik gabe bizi daitekeela ikusteko garaia izaten da uda eta, ikasturtea egunean expreso bakarrarekin pasatzea neure buruari proposatua nion arren, bulegoko giro beteak nahi baino gehiagotan altxarazi ninduen makinara atzo; ordubete pasatxoko itxarondia izan dut bart, loa etorri birtarte. Nahikoa tarte, iraileko egunotan filosofo izan nahiko nukeela erdiesteko.

Hala izan nahi nuke, besterik ez bada ere, neure buruari esplikatzen, zein erlatiboa izan daitekeen objektibotasuna, sostengua burmuin subjektibo bat denean. Izango nintzateke fisikari ere, zergatik ez: datorren igandeko eguraldi, haize eta olatu iragarpenari begiratu; traineru bakoitzaren batioak eta pisua formula matematiko batean sartu; kale bakoitzak eguraldi horrekin zein itxura hartuko duen aurreikusi. Eta horrela bai, horrela akaso erabakiko nuke, objektiboki, sei segundoko abantaila asko edo gutxi ote den.

Baina berriro itzuliko nintzateke filosofiara, eta 'asko' eta 'gutxi' definitu beharrera. Eta gero egingo nuke jauzi psikologiara ere, eta aztertu, sei segundoko atzerapena gehiegizkoa dela

uste duenak, zein grina duen erronka hori iraultzeko. Edo, kontrara, oihal zuri eta urdina behatz puntetan duenari barrena zein urduritasun klasek jaten dion ikusi.

Insomnioak eragindako pentsamendu absurdo horiez aparte, dena den, esango nuke ez dela arrauna, oro har, eta Kontxa, zehazki, azal lezakeen diziplina zientifikorik, ezpada, inoren garapenarekin baino gehiago, talde zehatz baten porrotarekin pozten diren horien burmuina aztertuko lukeen jakintzaren bat; zoriontsu izateko modu makur hori dutenena.

Pentsaezina baita, segundoen zakutxo alde nahiz kontra izanda ere, banderarako aukerak dituzten ontziek literaturarik ez erabiltzea, gehien komeni zaien amaiera irudikatzen. Ezinezkoa, gain-informazio eta gainpronostiko burbuila horretatik ihes egin, eta azken estropadara buru hotzez bertaratzea. Eta, tira, ia naturaren aurkakoa, Kontxako banderak burbuila hori guztia ez sortzea. Kontuak horrela, igande honetan ere urterokoa: bihotza bero, burua ero eta kafe gutxi, badaezpada ere.



Hilberriak eta urteurrenak

atarian jarrita
Gipuzkoako
3 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 100 € • Harpidedunentzat 50 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 150 € • Harpidedunentzat 75 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 50 € • Harpidedunentzat 25 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenara 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Xarelari onenak berriro izango dira lehian Iruran

I. San Migel Xare Irekia jarriko da abian ostiralean, eta bertan lau bikote ariko dira nor baino nor; finala irailaren 28an jokatuko da, herriko festen barruan

Imanol Garcia Landa Irura

Ametsa pilota elkarateak bultzatuta, eta Irurako Udalak lagunduta, xarelari onenak herriko trinketean ikusteko aukera berreskuratu dute. Ostiral honetan hasiko da I. San Migel Xare Irekia, Irurako Udala Sari Nagusia, eta herriko festen egitarauaren barruan izango da finala, irailaren 28an.

Txapelketaren aurkezpenean Mikel Uzkudun Ametsa pilota elkarateko ordezkaria, Gorka Murua alkatea eta Julen Apeztegia pilotaria izan dira. Iruran aurretik jokatu izan da txapelketa berezi bat, Joxe Manuel Larrinagaren oroimenezkoa, baina urte batzuk badira ez zela erreferentziazko txapelketa hori antolatzen. Uzkudunek azaldu duenez, «hori dela eta, 2018an herritar batzuekin hausnarketa egin eta gero, xarearen aro berri bati hasiera ematea erabaki genuen. Helburuetako bat, hain zuzen ere, sanmigeletan jokatzen zen torneo garrantzitsu hori berreskuratzeko izan zen». Udalarekin harremanetan jarri eta bertatik bere laguntza eskaini zuten torneo antolatzeke.

Txapelketari izena aldatu diote, nolabait aro berri hori irudikatzeke. Hala ere, formatuak antzekoa izan behar zuela ikusi zuten antolatzaileek, hau da, Iparraldeko eta Irurako pilotariek osatutako bikoteek jokatu. «Zoritxarrez, egun pilotari gutxi ditugu herrian xarean aritzen direnak. Garai hartan erdiak baino gehiago herrikoak ziren eta Iparraldetik bizpahiru etortzen ziren», esan du Uzkudunek. «Egun egoera alderantzizkoa da, bi pilotari baititugu goi mailan ari direnak, Joxi Lopetegui eta Julen Apeztegia, eta Iparraldeko pilotarien behar gehiago dugu lehen baino». Iparraldeko pilotariengana jotzerakoan hauen prestutasuna jaso zuten antolatzaileek.

Hori horrela, Iparraldeko sei pilotari izango dira lehian txapelketan, herriko biekina batera. Beraz, lau bikote osatu dituzte: Apeztegia eta Funosas, Lopetegui



Julen Apeztegia, Mikel Uzkudun, Gorka Murua eta Alex Lasa udal teknikaria, aurkezpenean. I.G.L.

eta Borthieru, Driolet eta Etxeverri, eta Larronde eta Moncada. Hasieran ligaxka jokatu dute, denek denen aurka. Finalerdiak zein finala herriko festen barruan jokatu dira.

NESKEN ARTEKO LEHEN PARTIDA Finalaren atarikoan nesken arteko xare partida ere antolatu dute. «Partida historikoa izan daiteke», esan du Uzkudunek. «Gaur egun emakumeen arteko partidak nonahi dauzkagu, bai eskuz, bai paletaz, eta zesta puntakoak ere bai. Baina xarez oraindik orain ez da jokatu nesken artekoa. Beraz, Irurako lau neskek parte hartuko dutena lehen partida 'ofiziala' izan daiteke».

Bere aldetik, Murua alkateak nabarmendu duenez, «udaletik oso pozik gaude formatu hau berreskuratu delako, berriz ere Iruran goi mailako partida horietaz gozatzeko aukera izango dugulako egun horietan». Murua gaineratu duenez, xarea Iruran «kirol bat baino gehiago» da: «Bertako ondarearen parte da, urte askoan jende askok lan egin duelako oraindik bizirik mantentzeko».

Irurako Udalaren lana Ametsa pilota elkarateak egiten dituen pauso horietan «laguntzaile bezala jarraitzea, babesa ematea,

eta beraiekin batera egin behar diren pauso horiek aztertzea» dela esan du Murua. Bide batez, garrantzi berezia eman dio alkateak lehenbiziko aldiz nesken partida izango delako: «Beste kirolekin bezala, xareak ere berdintasunaren alde pauso horiek ematea nahi dugu. Egun badaude xare eskolan neskak, eta bide horri jarraipena eman nahi genioke, udaletik ere ahal den guztia lagunduz».

Azkenik, Murua eskertu egin du Ametsa elkarateak egiten duen lana: «Bertan aritzen diren guztiak boluntario aritzen direlako, eta ez delako erraza. Eta xareak ondare izaten jarraitu behar badu, elikatze hori behar du, eta elikatze horrek udalaren parte hartzea behar du, Ametsa elkaratearena eta herritar guztiena». Bide batez, herritar guztiak animatu ditu txapelketa ikustera joatera.

Julen Apeztegia xarelaria, bere aldetik, «oso pozik» agertu da txapelketarengatik. «Urtean zehar txapelketak izaten ditugu, baina gehienetan Iparraldera joan behar izaten dugu. Maila oneko txapelketa bat jokatu ahal izateko beti joan behar izaten dugu Iparraldera». Apeztegiari, Irurako torneo «oso aukera egokia» iruditzen zaio bere maila

IREKIAREN EGUTEGIA

Ligaxka

Irailaren 6a, ostirala, 19:00. Apeztegia eta Funosas vs. Larronde eta Moncada; Lopetegui eta Borthieru vs. Driolet eta Etxeverri.

Irailaren 14a, larunbata, 17:00. Driolet eta Etxeverri vs. Apeztegia eta Funosas; Larronde eta Moncada vs. Lopetegui eta Borthieru.

Irailaren 18a, asteazkena, 19:00. Driolet eta Etxeverri vs. Larronde eta Moncada; Apeztegia eta Funosas vs. Lopetegui eta Borthieru.

Finalerdiak

Irailaren 22a, igandea, 17:00. Sailkapeneko lehenengoa vs. laugarrena; sailkapeneko bigarrena vs. hiru-garrena.

Finala

Irailaren 28a, larunbata, 12:00. Lehenengo partidari, herriko nesken arteko partida. Bigarren partidari, xare txapelketako finala.

hobetzeko. «Txapelketa honek bultzada bat ematen du eta motibazio bat ematen dizu jarraitzeko, Irurara datozen jokalariek une honetan munduan dauden onenak baitira, eta niretzat ohore bat da bertan parte hartu ahal izatea».

Beste bi garaipen lortu ditu Lauburuk bi lan astetan

Erredakzioa Ibarra

Pasa den astea izan zen denboraldi-aurrea prestatzeko garaian gogorrena Laubururentzat, hiru entrenamendu saio burutuz eta Belabietatik kanpora jokatu behar izan zituzten bi lagunartekoekin. Biak irabazi zituen, Eborrion Bustantza taldearen aurka 0-3, eta Burgosen Juventud del Circulo taldearen kontra 2-4, 2. B mailako multzo berean dagoen taldea hain zuzen.

Areto futboleko denboraldia irailaren 14an hasiko da eta prestatzeko astebete besterik ez da geratzen. Bajan dauden jokalariek osatzea espero dute, Belabietan jokatu den denboraldi-aurreko azken norgehiagokan lantalde osoa ikusi ahal izateko. Bihar izango da, 19:30ean, Iruñeko San Juan taldearen kontra. Norghegiagoka denboraldi berri-rako lantaldearen aurkezpena egiteko baliatuko da.

Tolosa CF atletismo eskolak, bihar, hasiera

ATLETISMOA // Abian jarriko da bihar Tolosa CF atletismo eskola. Benjaminak (2010 eta hurrengoak) izango dira lehenak hasten. Bi egun edukiko dituzte aukeran, asteartea eta/edo ostirala, 17:30etik 18:30era bitartean, eta bihar izango da lehen entrenamendua. Alebin mailakoek (2008-2009) astelehen eta asteazkenetan entrenatuko dute, 17:30etik 18:30era bitartean, eta lehenengo entrenamendua datorren asteazkenean izango dute. Infantil mailako haurrek (2006-2007) astelehen, asteazken eta ostiralean entrenatuko dute 17:30etik 18:45era, eta datorren asteazkenean hasiko dira. Informazioa nahi duenak 696 004 237 zenbakira deitu dezake.

Bateletan parte hartzeko aukera

ARRAUNA // Tolosaldeko Arraun Klubetik deialdia egin dute bateletan parte hartu nahi dutenentzat. Datorren astean, astelehenetik ostiralera, Tolosako Zerkausiaren azpian dagoen enbarkaderoan eman ahal da izena, 18:00etatik 19:00etara.



OSTEGUNA, 2019KO IRAILAK 5
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Balarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
galtzaundi, Txolarrre, berria, BERTAKO HEDABIDEAK, Tolosaldeko gizarte eragileak

OSTEGUNA 05

AGENDA

Deialdiak

Berastegi. Odolomatea 18:30ean, J.A. Muñagorri eskolan.

28 KANALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
16:30. Hiribaratzea.
17:30/21:30. Gaurkoan Tolosaldeko.
22:00. Platopic.
22:30. Ajoarrieroa.
23:30. Gaurkoan Tolosaldeko.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Ipar haizea nagusituko zaigu eta fronte ahul batek lainotza eta euri pixkabat utziko digu. Zaparradak ahulak izango dira baina egun guztian zehar botako du. Ipar haizea ibiliko den bezala tenperaturak freskotik mantenduko zaizkigu. Egunaren erdiko orduetan 16-18 gradura iritsiko da, eta eguneko erdiko

orduetan 20-22 gradutatik ez dapa-sako.



Bihar. Altxatzeko joera hartuko du. Goizaldean hodeitza handia izango dugu; goizean eta egunsentian euri langar pixka bat botako du, baina goiz erdirako erabat atertuko du eta eguerditik aurrera ostarteak irekitzen joango dira. Arratsaldean, giro argiagoa izango dugu. Ipar haizea ibiliko da baina tenperaturak zertxobait gorago kokatuko dira, eguzki ordu gehiago izango ditugulako. 17-19 gradura ailegatuko da.

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. Cecilia Bronte Posada. Korreo kalea, 20. Telefono zenbakia: 943 67 60 13.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Amarotz auzoa, 9. Telefono zenbakia: 943 67 5118.


TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ZORION AGURRAK



Zorionak Luis eta Maria Angeles!

Bihar zuen urrezko ezteiak! Jarraitu maitasun eta alaitasun eredu paregabe izaten! Bihotzez zuen familiak.



MUNDUKO BESTE PUNTAN, EDO ETXEAN

Elkartasun estropada izenburua jarri dio egileak Udako Argazki Lehiaketara bidali duen irudi honi. Ez da **TOLOSALDEKO ATARIA**-k jasotako argazki bakarra, guztiak ikusi daitezke **ataria.eus** webgunean. Helbide berera sartuta hartu daiteke parte eta irailak 22a da argazkiak bidaltzeko azken eguna. **ATARIA**

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·